

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

### 1399

*EBAZPENA, 2025eko martxoaren 17koa, Deskarbonizazio zuzendariarena. Honen bidez, aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematen zaizkio honako proiektu honi: «Zuhaitzik gabeko zerrenda handitzea, 13,2 kV-ko Urkabustaiz Cto. 5 (Murgia) zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoan, Urkabustaiz (4660) TEAREN eta 115. euskarriaren artean», Arabako Zuia eta Zigoitia udalerrietan.*

Espediente zk.: 01ATY 202100033

#### AURREKARIAK

2021eko uztailaren 21ean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zituen honako proiektu honi dagokion instalaziorako: «Zuhaitzik gabeko zerrenda handitzea, 13,2 kV-ko Urkabustaiz Cto. 5 (Murgia) zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoan, Urkabustaiz (4660) TEAREN eta 115. euskarriaren artean, Arabako Zuia eta Zigoitia udalerrietan».

2021eko abuztuaren 24an, dokumentazioa osatu zen, eta proiektuaren ingurumen-dokumentua aurkeztu zen, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua egin baitzitzaion.

2021eko urriaren 10ean, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren eskaera osatu zen ingurumen-organoaren aurrean.

2022ko urtarrilaren 14an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariak ebazpena eman zuen. Ebazpen horren bidez, ingurumen-inpaktuaren txostena egin, proiektuaren irismen-dokumentua prestatu, eta proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaiola zehaztu zen, ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeelako.

2022ko urtarrilaren 21ean, ingurumen-txostena jakinarazi zitzaion I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU sustatzaileari.

2022ko maiatzaren 31n, sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren nahitaezko azterlana aurkeztu zuen, eta jendaurrean jarri zuen, proiektuarekin batera, bi iragarkiren bidez: 2022ko ekainaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 2022ko abuztuaren 22ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean. Ezarritako epean ez da alegaziorik jaso.

Aldi berean, kontsulta hauek egin zaizkie eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, eta dagozkien separatak eman zaizkie ukitutako ondasunak eta eskubideak dituzten administrazio, organismo eta zerbitzu-enpresei:

- Urkabustaizko Udala.
- Zigoitiko Udala.
- Zuiako Udala.
- Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.

2025eko martxoaren 28a, ostirala

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.
- IHOBE.
- URA-Uraren Euskal Agentzia eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eguzkizaleak.
- Ekologistak Martxan.

Honako hauen txostenak jaso dira: Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza eta Kultura Ondarearen Zuzendaritza, URA-Uraren Euskal Agentzia eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko eta Arkitektonikoaren Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du proiektuak Natura 2000 Sarean izango dituen ondorioen azterketa berrikustea, bai eta erabileren erregulazioarekiko bateragarritasunaren azterketa berrikustea ere.

Txostenak sustatzaileari bidali zaizkio, kontuan har ditzan, eta hark erantzuna eman die.

2023ko maiatzaren 25ean ingurumen-espeditentea osatu zen, ingurumen-inpaktuari buruzko proiektuarekin eta azterlanarekin, bai eta jendaurreko informazioaren eta egindako kontsulten emaitzekin ere. Espediente hori Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzara bidali zen, ingurumen-organoa baita. 2023ko ekainaren 19an, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren azterlana zuzentzeko eta hobetzeko eskatu zuen. Errekerimendua sustatzaileari bidali zaio. 2024ko otsailaren 2an, sustatzaileak errekerimenduari erantzuteko aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu zitzaion ingurumen-organoari.

2024ko otsailaren 28an, ingurumen-organoak beste errekerimendu bat bidali zuen, 2024ko otsailaren 2an aurkeztutako dokumentazioari buruzko beste txosten bat eskatzeko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzari.

2024ko apirilaren 10ean, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak jakinarazi zuen ez direla bete aurreko txostenean adierazitakoak, batez ere Natura 2000 Sarearen gaineko eraginari dagokionez. Erantzun hori Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari helarazi zitzaion, eta beste errekerimendu bat helarazi zitzaion sustatzaileari, 2024ko maiatzaren 28an, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzaren txostena bete zezan.

2024ko uztailaren 2an, sustatzaileak Natura 2000 Sarearen gaineko eraginari buruzko eranskin espezifiko bat aurkeztu zuen, eta Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzari helarazi zitzaion. Zuzendaritza horrek, 2024ko irailaren 9an, beste txosten bat egin zuen, eta, bertan, adierazten da sustatzaileak erantzun egokia eman diela zuzendaritza horrek planteatutako gaiei. Txosten hori 2024ko irailaren 10ean erantsi zitzaion ingurumen-espeditenteari.

2024ko azaroaren 5ean, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak ebazpena eman zuen. Ebazpen horren bidez, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2024ko abenduaren 5ean, 237. zenbakian. Ebazpen horretan, besteak beste, proiektua gauzatzeko hartu beharreko babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ezarri ziren.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

1.– Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak ordezkapenen araubidea arautzen du lehenengo xedapen gehigarrian, eta honako hau ezartzen: «Dekretu honetan aipatutako organoen titularrak ez badaude edo gaixorik badaude, edo karguak hutsik badaude, edo abstenitzeko edo errefusatzeko adierazpena egin bada, sailburuak berariazko ebazpenik eman ezean, titularrak ordezteko arau hauek beteko dira:(...)»

e) Organo periferikoetako titularren ordezkoa haien gainetik dagoen zuzendaria izango da.»

Beraz, ebazpen honen datan Arabako lurralde-ordezkararen lanpostua hutsi dagoenez, Deskarbonizazioko zuzendariari dagokio haren ordezkoa izatea.

3.– Espedientea izapidetzean, honako arau hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoko instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituen; eta 48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen.

4.– Egindako kontsulten emaitzak ikusita, ez da ikusten proiektua gauzatzearen aurkako jarrearik edo eragozpenik dagoenik.

5.– Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak egindako ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen ondorioak aztertzen dira, eta proiektua gauzatzeko baldintza lotesleak ezartzen dira, bai eta babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta dokumentu-eskakizunak ere. Horiek betetzea ebazpen honetara eraman behar da, ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezkoa eta loteslea baita.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har eta kasu honetan aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Deskarbonizazioko zuzendariak honako hau

## EBAZTEN DU:

1.– I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena ematea, honako proiektu honi dagokion instalaziorako: «Zuhaitzik gabeko zerrenda handitzea, 13,2 kV-ko Urkabustaiz Cto. 5 (Murgia) zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoan, Urkabustaiz (4660) TEArean eta 115. euskarriaren artean Arabako Zuia eta Zigoitia udalerrietan ».

Ebazpen hau ematen da, honako baldintza orokor hauekin:

1.– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

3.– Proiektua gauzatzeko, sustatzaileak kontuan hartu beharko ditu proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri guztiak, bai eta proiektua egiteko ezarritako baldintzak ere. Bereziki, honako hauek nabarmentzen dira:

– Lanen egutegia egokitzea, hegazti-espezie babestuen eta kiroptero zuhaiztarren aldi kritikoe-tan eraginik ez izateko; proiektatutako lanak ezingo dira egin martxotik abuztura bitartean, eremu babestuetan.

– Sustatzaileak jarraian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Arabako Lurralde Ordezkaritzari, ingurumen-organoari helarazteko:

a) Obrak hasi aurretik, ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren E.3 apartatuaren arabera.

b) Obrak amaitzean, obrak egin bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, bai eta babes- eta zuzenketa-neurrien betetze-mailaren erregistroa ere, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren E.1 apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

c) Ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren D.9 apartatuan aurreikusitako konpentsazio-neurriak amaitzean, konpentsazio-neurri horiek nola hartu diren jasotzen duen dokumentua.

4.– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren, eta arauzko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko dio Arabako Lurralde Ordezkaritzari, ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman dezan. Jakinarazpen horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

5.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideei kalteri egin gabe ematen da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Trantsizio Energetikoko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 17a.

Arabako lurralde-ordezkarria ez dagoenez, eta bat etorriaz Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren e) apartatuarekin.

Deskarbonizazio zuzendaria,  
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.